

Errolda Jarraituaren Estatistika
Behin betiko datuak 2022ko urtarrilaren 1ean

Nafarroan 664.117 biztanle daude Erroldan inskribatuta, eta joerak jarraitzen du goranzkoa izaten, azken zazpi urteetan bezala

Biztanleriaren % 88,9k Espainiako nazionalitatea du eta % 11,1ek, atzerrikoa


2023ko urtarrilaren 30a

NAFARROAN ERROLDATUTA DAGOEN BIZTANLERIA

Errolda Jarraituaren Estatistikaren¹ datuen arabera, Foru Komunitatean, 2022ko urtarrilaren 1ean, 664.117 biztanle bizi dira, eta jarraitzen du azken zazpi urteotako goranzko joerak.

1. GRAFIKOA

Nafarroan bizi diren biztanleen bilakaera, 2003-2022 urteak



Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

¹ Ohar honetan, erroldatutako biztanleriari egiten zaion erreferentzia honela ulertu behar da, betiere: Errolda Jarraituaren arabera dagoen biztanleria, kontuan hartuta hura dela INEk kudeatzen duen udal-erroldak koordinatzeko fitxategia, eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena eskuratzeko araututako prozeduran aurreikusitako kontabilizazio-irizpideak aplikatu ondoren. Biztanleria Nafarroan bizi dena da; alegia, ez ditu kontuan hartzen atzerrian bizi diren espainiarrak. Haien kasuan, beste estatistika bat dago: [Atzerrian Bizi diren Espainiarren Erroldaren Estatistika](#).



Nazionalitatearen arabera. Guztira, 590.642 pertsonak dute Espainiako nazionalitatea (% 88,9) eta 73.475ek, atzerrikoa (% 11,1).

2022. urteko biztanleria duela hamar urtekoarekin erkatzen badugu, Espainiako nazionalitatea zuen Nafarroako biztanleria % 89,2 zen eta atzerrikoa zeukatena, % 10,8. Aldi horretan, Nafarroan errolatutako Espainiako biztanle kopurua areagotu egin da eta 15.699 pertsona gehiago dira (% 2,7), eta atzerritarrenak ere gora egin du, eta 3.852 pertsona gehiago dira (% 5,5).

1. TAULA

Nafarroan bizi diren biztanleak, nazionalitatearen arabera

	Biztanleria, 2022ko urtarrilaren 1ean		Biztanleria, 2012ko urtarrilaren 1ean		Aldakuntza absolutua	Aldakuntza erlatiboa
	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean		
GUZTIRA	664.117	-	644.566	-	19.551	% 3,0
Espainiako nazionalitatea	590.642	% 88,9	574.943	% 89,2	15.699	% 2,7
Atzerriko nazionalitatea	73.475	% 11,1	69.623	% 10,8	3.852	% 5,5

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Sexuaren arabera. Nafarroan errolatuta dauden 664.117 pertsonetatik, % 49,5 gizonak dira (328.620 pertsona) eta % 50,4, emakumeak (335.497 pertsona). 100 emakumeko, 98 gizon daude.

Adin-taldearen arabera. Biztanleriaren % 14,8k 15 urte baino gutxiago dituzte, % 35,2k 15 eta 44 urte bitartean dituzte, % 29,7k 45 eta 64 urte bitartean eta % 20,5ek 65 urte baino gehiago.

Sexuaren eta adin-taldearen arabera. Adinaz gainera sexua kontuan hartzen bada, emakumeen portzentajea gizonena baino baxuagoa da 64 urte arte; adin horretatik aurrera, desberdintasun hori kontrara gertatzen da.

2. TAULA

Biztanleria, sexuaren eta adin-taldearen arabera, 2022ko urtarrilaren 1ean

Adina	Biztanleria, 2022ko urtarrilaren 1ean					
	Pertsona kop.			% guztizkoaren gainean		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
0 – 14 urte	98.488	50.485	48.003	% 14,8	% 15,4	% 14,3
15 – 44 urte	234.314	118.927	115.387	% 35,3	% 36,2	% 34,4
45 – 64 urte	196.699	99.530	97.169	% 29,6	% 30,3	% 29,0
65 urte eta gehiago	134.616	59.678	74.938	% 20,3	% 18,2	% 22,3
GUZTIRA	664.117	328.620	335.497	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Datu horiek eta duela hamar urtekoak erkatzen baditugu, biztanleriaren banaketan aldaketa bat izan dela ikusten da. Biztanleria galdu da adin goiztiaragoetan, eta adin berantiarrek pisua irabazi dute biztanleriaren egiturari.



3. TAULA


Biztanleria, sexuaren eta adin-taldearen arabera, 2022ko urtarrilaren 1ean, eta konparatiba 2022. urtearen aldean

Adina	Biztanleria, 2012ko urtarrilaren 1ean						Ald. absolutua guzt. (2022/2012)	Ald. erlatiboa guzt. (2022/2012)
	Pertsona kop.			% guztizkoaren gainean				
	Guztira	Gizonak	Emakum eak	Guztira	Gizonak	Emakum eak		
0 – 14 urte	100.282	51.452	48.830	% 15,6	% 16,0	% 15,1	-1.794	–% 1,8
15 – 44 urte	262.500	135.497	127.003	% 40,7	% 42,2	% 39,3	-28.186	–% 10,7
45 – 64 urte	166.657	84.615	82.042	% 25,9	% 26,3	% 25,4	30.042	% 18,0
65 urte eta gehiago	115.127	49.889	65.238	% 17,9	% 15,5	% 20,2	19.489	% 16,9
GUZTIRA	644.566	321.453	323.113	% 100,0	% 100,0	% 100,0	19.551	% 3,0

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

2. GRAFIKOA

Biztanleriaren piramidea, 2022ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Batez besteko adina. Nafarroako biztanleriaren batez besteko adina 43,8 urtekoa da, 2012koa baino bi urte handiagoa (41,8 urte).



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00


ATZERRIKO NAZIONALITATEA

Nafarroan bizi den eta atzerriko nazionalitatea duen biztanleria, 2022ko urtarrilaren 1ean, 73.475 pertsonak osatzen dute; erroldatutako biztanle kopuru osoaren % 11,1 bat dira. 2021ean, kolektibo hori handitu egin da, eta 2.034 pertsona gehiago dira; hala, % 2,8 areagotu da, eta, bosgarren urtez jarraian, goranzko joera du.

Atzerriko nazionalitatea duen biztanleriaren bilakaerari dagokionez, azken bi hamarkadetan, 2011. urtera arte etengabeko hazkuntzan jardun ondoren, 2012tik 2017ra Nafarroak biztanleria galdu zuen eta, 2018tik aurrera, berreskuratzen hasi zen.

3. GRAFIKOA

Atzerriko nazionalitatea duen biztanleria. 2003-2022 bilakaera



Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta. Behin-behineko datuak.

Sexuaren arabera. Atzerriko nazionalitatea duen biztanleriaren % 50,5 gizonezkoa da, eta gainerako % 49,5a, emakumezkoa; Espainiako nazionalitatea duen gizonezko biztanleria % 49,4 da eta emakumezkoa, % 50,6.



Kontinentearen arabera. Atzerriko biztanleen % 32,1ek Europako nazionalitatea dute, % 31,5ek Amerikako nazionalitatea, % 31,4k Afrikakoa, % 4,7k Asiakoa eta % 0,2k baino ez dute Ozeaniakoa edo jotzen dira aberri gabetzat.

4. TAULA

Biztanleria nazionalitatearen arabera, sexuka eta herrialde-taldeka, 2022ko urtarilaren 1ean

	Pertsona kop.			% bertikalak			% horizontalak		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA	664.117	328.620	335.497	100,0	100,0	100,0	100,0	49,5	50,5
Espainiako nazionalitatea	590.642	291.531	299.111	88,9	88,7	89,2	100,0	49,4	50,6
Atzerriko nazionalitatea	73.475	37.089	36.386	11,1	11,3	10,8	100,0	50,5	49,5
ATZERRITARRAK	73.475	37.089	36.386	100,0	100,0	100,0	100,0	50,5	49,5
Europako gainerako herrialdeak	23.590	12.118	11.472	32,1	32,7	31,5	100,0	51,4	48,6
Afrika	23.078	12.983	10.095	31,4	35,0	27,7	100,0	56,3	43,7
Amerika	23.164	10.002	13.162	31,5	27,0	36,2	100,0	43,2	56,8
Asia	3.480	1.894	1.586	4,7	5,1	4,4	100,0	54,4	45,6
Ozeania	17	10	7	0,0	0,0	0,0	100,0	58,8	41,2
Aberri gabea	146	82	64	0,2	0,2	0,2	100,0	56,2	43,8

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Azken 10 urteotako datuak erkatzen baditugu, Europako nazionalitatea duten atzerritarren jaitziera (-% 17,0) nabarmentzen da; hala ere, Asiako eta Afrikako jatorria duten atzerritarren kopuruak gora egin du, % 64,5 eta % 29,3, hurrenez hurren.

5. TAULA

Erroldatutako biztanleria, nazionalitateko kontinentearen arabera. 2012. – 2022. urteen konparatiba.


	2022. urtea	2012. urtea	Ald. absolutua	Ald. erlatiboa
GUZTIRA	664.117	644.566	19.551	% 3,0
Espainiakoa	590.642	574.943	15.699	% 2,7
Atzerrikoa	73.475	69.623	3.852	% 5,5
ATZERRITARRAK	73.475	69.623	3.852	% 5,5
Europako gainerako herrialdeak	23.590	28.425	-4.835	- % 17,0
Afrika	23.078	17.855	5.223	% 29,3
Amerika	23.164	21.202	1.962	% 9,3
Asia	3.480	2.116	1.364	% 64,5
Ozeania	17	25	-8	- % 32,0
Aberri gabea	146	0	146	-

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.



4. GRAFIKOA

Erroldatutako biztanleria, nazionalitateko kontinentearen arabera. 2012. – 2022. urteen konparatiba




Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Adin-taldearen arabera. Adinen araberako banaketa desberdina da biztanle atzerritarren eta nazionalen artean, eta alderik handiena 15 eta 64 urte bitarteko taldean ikusten da. Hala, espainiarren % 62,0 adin-talde horretan dago, eta, atzerritarren kasuan, % 78,1 dira; kontrako gertatzen da 65 urteko edo gehiagoko taldean, espainiarren % 22,3 baitago talde horretan eta, atzerritarren kasuan, % 3,7.

5. GRAFIKOA

Biztanleria, nazionalitatearen eta adin-taldearen arabera, 2022ko urtarilaren 1ean



Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

Herrialdeen arabera. Nafarroako atzerriko biztanleen artean, nazionalitate nagusiak honako hauek dira: Maroko, Errumania, Kolonia, Bulgaria, Portugal, Ekuador, Peru, Aljeria eta Txina. Zehazki, hamar atzerritarretik ia zazpi dituzte nazionalitate horiek.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

6. TAULA

Atzerritarrak, nazionalitatearen arabera (nazionalitate nagusiak)

	Biztanleria, 2022ko urtarrilaren 1ean		Biztanleria, 2012ko urtarrilaren 1ean		Aldakuntza absolutua	Aldakuntza erlatiboa
	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean		
ATZERRITARRAK, GUZTIRA	73.475	100,0	69.623	100,0	3.852	% 5,5
Maroko	16.613	22,6	10.797	15,5	5.816	% 53,9
Errumania	7.730	10,5	7.791	11,2	-61	-% 0,8
Kolonia	5.672	7,7	3.355	4,8	2.317	% 69,1
Bulgaria	5.615	7,6	7.196	10,3	-1.581	-% 22,0
Portugal	3.170	4,3	5.559	8,0	-2.389	-% 43,0
Ekuador	2.908	4,0	6.144	8,8	-3.236	-% 52,7
Peru	2.200	3,0	1.889	2,7	311	% 16,5
Aljeria	2.187	3,0	3.136	4,5	-949	-% 30,3
Txina	1.948	2,7	1.225	1,8	723	% 59,0
Beste nazionalitate batzuk	25.432	34,6	22.531	32,4	2.901	% 12,9

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

2012. urtearekin alderatzen badugu, Ekuadorreko, Portugalgo eta Boliviako nazionalitatea duten biztanleen kopuruaren jaitsiera nabarmendu behar dugu; % 52,7, % 43,0 eta % 57,5 jaitsi dira, hurrenez hurren. Egoera hori, neurri handi batean, nazionalizazio-prozesuen bidez azaltzen da².

7. TAULA

Atzerritarrak, nazionalitatearen arabera (nazionalitate nagusiak)

	Biztanleria, 2022ko urtarrilaren 1ean		Biztanleria, 2012ko urtarrilaren 1ean		Aldakuntza absolutua	Aldakuntza erlatiboa
	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean	Pertsona kop.	% guztizkoaren gainean		
ATZERRITARRAK, GUZTIRA	73.475	100,0	69.623	100,0	3.852	% 5,5
Maroko	16.613	22,6	10.797	15,5	5.816	% 53,9
Kolonia	5.672	7,7	3.355	4,8	2.317	% 69,1
Nikaragua	1.810	2,5	336	0,5	1.474	% 438,7
Venezuela	1.807	2,5	384	0,6	1.423	% 370,6
Honduras	1.254	1,7	216	0,3	1.038	% 480,6
Txina	1.948	2,7	1.225	1,8	723	% 59,0
Pakistan	789	1,1	435	0,6	354	% 81,4
Peru	2.200	3,0	1.889	2,7	311	% 16,5
Nigeria	1.415	1,9	1.113	1,6	302	% 27,1
Senegal	1.117	1,5	827	1,2	290	% 35,1
Italia	1.182	1,6	953	1,4	229	% 24,0
Ukraina	1.545	2,1	1.324	1,9	221	% 16,7
Siria	183	0,2	7	0,0	176	% 2.514,3

Bolivia	1.209	1,6	2.846	4,1	-1.637	-% 57,5
Portugal	3.170	4,3	5.559	8,0	-2.389	-% 43,0
Ekuador	2.908	4,0	6.144	8,8	-3.236	-% 52,7

Iturria: Nastat, geuk egina, Errolda Jarraituaren Estatistikatik (INE) abiatuta.

² Ikus [‘Espainiako nazionalitateko eskuratzeen Estatistika’](#).





ZIFREN ALDAKUNTZAREN KAUSAK BI URTEZ JARRAIAN

Urtarrilaren 1eko Erroldaren Berrikuspenaren ondoriozko Biztanleria Zifrak eskuratzeko prozedurak zenbait fase ditu, eta 2018ko ekainaren 20ko Ebazpenak arautzen du, *Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentetzarenak eta Autonomia eta Toki Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarenak*; ebazpen horren bidez, jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei, udal-erroldaren urteko berrikusketari eta biztanleriaren zifra ofizialak eskuratzeko prozedurari buruzkoak. Prozedura horretan oinarrituta, argitu behar da aurreko zifrekin alderatuta dagoen aldakuntza, 2021eko urtarrilaren 1ean, funtsean, honako kausa hauen ondoriozkoa dela:


1. **Errolda Jarraituan erregistratutako saldo begetatiboa:** Errolda Jarraituan erregistratutako jaiotzagatiko alden eta heriotzengatiko bajeen arteko aldea. 2021ekoak edo aurrekoak izan daitezke.
2. **Bizileku-aldakuntzen saldoa:** bizileku-aldakuntzagaratiko alta eta bajeen arteko aldea; aldakuntzaren data edozein izan daiteke, 2022ko urtarrilaren 1aren aurretik. 2021. urteari dagozkionek osatuko dute, gero, Bizileku Aldakuntzen Estatistika.
3. **Bizileku Iraunkorrerako Baimenik ez duten Batasunetik kanpoko Atzerritarrentzako iraungipenen saldoa:** biztanle horiek, bizileku iraunkorrerako baimenik ez badute, errolda-inskripzioa bi urtean behin berritu behar dute, *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen* 16.1. artikulua ezartzen duenez. Eta, hala egin ezean, haien inskripzioaren iraungipenagatiko baja deklaratu behar da. Biztanleria-zifrak jasotzeko unean, inskripzioa egiteko badago (alegia, ez dago INEN ez berritzearen berri, ez udalak bidalitako baja), ez da kontabilizatzen.

Prozedura 2006. urtetik dago finkatuta. Aldeak, funtsean, aurretik kontabilizatu ez diren eta, orain, haien inskripzioa berritu delako, kontabilizatuta dauden erregistroei dagozkie, bai eta erregistratutako iraungipenagatiko bajei eta udalaren aldakuntza egokia jaso ez delako kontabilizatu ez direnei ere.

4. **Bizileku Iraunkorrerako Baimena duten Batasuneko edo Batasunetik kanpoko Atzerritarrentzako egiaztapenen saldoa:** 2009. urteaz geroztik, prozedura bat ezarri da, udalek egiaztatzeko bizilekuak udalerrian egoten jarraitzen duela bizileku iraunkorrerako baimena duten Batasuneko edo Batasunetik kanpoko atzerritarren kasuan; hura 2 edo 5 urtean behin egiten da, Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatuta dauden ala ez kontuan hartuta.



5. **Bizilekukoak ez diren Gainerako Aldakuntzen eta Kudeaketakoen saldoa:** saldo hau da aurreko ataletan aurreikusten ez diren gainerako aldakuntzen arteko aldea, esaterako: espainiarren omisioagatiko altak eta inskripzio desegokiengatiko bajak, atzerritarren kasuan ez bezala, ez direnak Bizileku Aldakuntzen Estatistikan sartzen, ez baitira migrazio-mugimenduztat hartzen, erregistroaren egokitzapenak baizik; Erroldan erregistratutako bikoizketengatiko bajak; kontabilizazioa eragozten duten gorabeherak dituzten erregistroak, etab.).
6. **Nazionalitate-aldaketak:** aurrekoaz gainera, nazionalitatea kontuan hartuta, aintzat izan behar da espainiarren kopuruan edo atzerritarren kopuruan dauden aldakuntzak, zati batean, Errolda Jarraituan erregistratu diren nazionalitate-aldaketen ondorioz sortzen direla.





OHAR METODOLOGIKOA

Errola iraunkorra INEren errolda-oinarria da, eta udal-errolda guztiak koordinatzeko sortu da.

Udal-errolda administrazio-erregistro bat da, eta, hartan, udalerriko auzokide guztiak jasotzen dira. Haien datuek bizilekua eta ohiko helbidea udalerrian dituztela frogatzen dute. Espainian bizi den persona orok nahitaez inskribatu behar du ohiko bizileku duen udalerriko erroldan. Hura osatzeko, mantentzeko, berrikusteko eta babesteko ardura udalei dagokie, eta haiek bidali behar diote, hileru, INEri erroldetan dauden aldakuntzen berri, koordinatzen, haien artean bikoiztasunik egon ez dadin.

Errolda Jarraituaren Estatistika estatistika-eragiketa bat da, eta INEren errolda-basearen ondoriozko fitxategiak dituen oinarritzko aldagaien esplotazio zehatzetik abiatuta prestatzen da, biztanleriaren zifra ofizialen proposamena eskuratzeko prozesuaren ondoren. Aurrerapen honetan, INEk udalei jakinaraz diezaien aurreikusten den hasierako proposamena argitaratzen da. Urte bakoitzeko urtarilaren 1ean Espainian bizi diren biztanleen datuak ematen dira, bizilekuaren, sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta jaioterriaren arabera.

- **Eragiketa mota:** jarraitua, urtean behingoa.
- **Eremu geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emaitzak zer eperi dagozkion:** urtea.
- **Biltzeko metodoa:** sintesi-estatistika.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Errolda Jarraituaren Estatistika, 2022ko urtarilaren 1ean



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

